

2003. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-babesean egindako gastua BPGaren %19,2 izan zen

Zahartasunaren eta gaixotasun/osasun-laguntzaren ziozko gizarte-prestazioak guztirakoaren %77etik gorakoak izan ziren


EUSTATen datuen arabera, 2003. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan 9.505 milioi euro (hau da, BPGaren %19,2) erabili zen gizarte-babeserako baliabideetarako.


Gizarte-babesaren gastu osoa aintzat hartuta, 2003. urteko gizarte-prestazioak gastu osoaren %98 izan ziren 9.296 milioi euroekin; are gehiago, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-babesaren kontuari buruzko datuak lehenengo aldiz atera ziren urtetik aurrera (1995. urtea) kopuru hori etengabe hazi da. 2002. urtearen aldean %8,3 hazi da eta 1995etik 2003ra bitarteko aldian urtean %6,6eko hazkunde metatua izan zen.

Emitza horiek guztiak Estatu osoko datuekin erkatzean alde nabarmenak daudela ikusten da. Biztanle bakoitzeko gizarte-prestazioetan egindako gastu osoa Euskal Autonomia Erkidegoan izan da handiagoa aipatu aldian zehar. Gainera, denbora igaro ahala bien arteko aldea gehitu egin da; 1995. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan biztanle bakoitzeko prestazioetan %9tik gorako gastua zen 2003. urtean, aldiz, %24koa.

Bestalde, gizarte-babesean egindako ahalegina biztanleen gizarte-babeserako gordetzen den BPGaren ehunekoaren arabera neurtzen dela kontuan hartuta, ahalegin hori Euskal Autonomia Erkidegoan Espainian baino txikiagoa izan da beti baina azken urteetan bien arteko aldea moteldu egin da eta, batez ere, 2000. urtetik aurrera.

1. grafikoa. Erosteke Ahalmenaren Parekotasuneko (EAP) gizarte-prestazioen gastua, biztanle bakoitzeko eta BPGaren ehunekoaren arabera.






Iturria: Eustat

Europar Batasunarekin (EU-15) alderatuz gero, pixkanaka European biztanle bakoitzeko dagoen gastura hurbiltzen goazela ikus daiteke: 1995. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan adierazle hori Europar Batasuneko batez besteko balioaren %65 baino zertxobait gehiagokoa izan zen; 2003. urtean, aldiz, indize bera %75etik gorakoa izan zen. Alabaina, biztanle bakoitzeko gastuan ematen den bateratzea ahalegina aintzat hartuta baloratzen bada (BPGaren ehunekoa) maila garrantzitsuetan ezberdintasunak ematen dira eta bateratze hori dagoeneko ez da ematen.

2. grafikoa. Gizarte-prestazioetako gastuaren banaketa, funtzioen arabera. 2003



Iturria: Eustat

Gizarte-prestazioetan egindako gastua zortzi funtziotan banatzen da, eta horien artean zahartasuna eta gaixotasuna/osasun-laguntza nabarmentzen dira.

Zahartasunaren funtzioan egindako gastuan pentsioez gainera beste prestazio batzuk ere badaude, hala nola: etxez etxeko laguntza edo adinekoei ostatu emateko prestazioak. Bada, prestazio horietan 4.265 milioi euroko gastua egin zen. 65 urteko edo gehiagoko pertsona bakoitzeko 11.145 euroko gastua egin zen. Prezioen eragina

kenduta, adin-tarte honetako pertsona bakoitzaren zahartasunaren ziozko prestazioen erosteko balioa urtean %1,1eko erritmoarekin joan da gehitzen 1995. urtetik 2003. era.

Gaixotasun/osasun-laguntzaren funtzioan antzeko azterketa eginez gero ikus daiteke urtean batez beste %4,3 gehitzen direla Euskal Autonomia Erkidegoan biztanle bakoitzeko prestazioen balioa, 1995 eta 2003 ekitaldien artean.

Langabeziako gastuaren bilakaera, aitzitik, oso ezberdina izan da aztertu den aldi horretan. Balio absolutuetan, langabetuentzako baliabideak gutxitu egin dira. Dena den, are nabarmenagoa izan da langabetuen kopuruaren gutxitzea eta, ondorioz, INEMeko bulegoetan izena emanda duen pertsona bakoitzeko prestazioen benetako balioa urtean %4,1eko erritmoarekin gehitu da.

Gizarte bazterketaren (%12,6), familia/semi-alaben (%11,9) eta etxebizitzaren (%10,0) funtzioak izan dira urtean hazkunde-tasa metatu handiena lortu dutenak 1995-2003 aldian.

1. taula: Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-babesaren gaineko datu eta adierazle nagusienak. 1995-2003

	Aldakuntza-tasa				Urteko batez bestekoa
	1995	2002	2003 (a)	2002-03 (%)	1995-03 (%)
GIZARTE-BABESEKO GASTUA, GUZTIRA					
mila eurotan	5.722.045	8.775.393	9.504.674	8,3	6,5
Merkatu prezioko BPGaren %an	19,8	18,8	19,2	2,1	-0,4
FUNTZIOEN ARABERAKO GIZARTE-PRESTAZIOETAKO GASTUA (mila eurotan)					
GUZTIRA	5.575.205	8.585.040	9.295.826	8,3	6,6
Gaixotasuna / Osasun-laguntza	1.541.167	2.549.074	2.749.393	7,9	7,5
Baliaezintasuna	400.417	644.402	684.398	6,2	6,9
Zahartasuna	2.503.434	4.066.984	4.417.366	8,6	7,4
Bizirik irautea	200.546	280.127	300.271	7,2	5,2
Familia / Seme-alabak	63.878	137.501	157.027	14,2	11,9
Langabezia	780.663	729.830	773.446	6,0	-0,1
Etxebizitza	12.160	18.354	26.100	42,2	10,0
Gizarte-bazterketa	72.940	158.768	187.825	18,3	12,6
ADIERAZLEAK (eurotan)					
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanle bakoitzeko	2.654	4.110	4.436	7,9	6,6
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanle bakoitzeko eta EAPn	3.106	4.777	5.079	6,3	6,3
"Gaixotasun / osasun-laguntzaren" funtzioan egindako gastua, biztanle bakoitzeko	734	1.220	1.312	7,5	7,5
"Zahartasunaren" funtzioan egindako gastua, 65 urteko edo gehiagoko pertsona bakoitzeko	8.023	10.763	11.544	7,3	4,7
"Langabeziaren" funtzioan egindako gastua, erregistratuta dagoen langabetu bakoitzeko	5.964	9.887	10.497	6,2	7,3
Merkatuko prezioko BPG, mila eurotan*	28.855.320	46.559.413	49.572.859	6,5	7,0

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tel:+34-945-01 75 47 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp